

GANDIAGAREN HERIOTZA

Poeta eta gizon handia

Bitoriano Gandiagaren

heriotza galera handia izan da euskal kulturarako, eta samin handia hura ezagutu eta maite zuten lagunentzat.

Juan Mari LEKUONA

Oraindik ez dira zortzi egun Bitoriano ikusi nuela, eta azken gogorapenak Orbelauan zituenean, bere jarotetxean, eta umetako denboretan. Orbelauan erortzekotan dago, baina Bitoriano haritzak landatu nahi zituen, haritza arbola argia delako. Azken bisitaldian, umetako bizikizunak berriki zizkion eta haritzaren argia eta txori txikiak kantua gogoratzin zituen. Harritu ninduen beste gauza bat azken une arte izan zuten idazteko gogoia da. Lanxo bat egiten ari zen eta bere atsedena idazten nekatzela zela esaten zuten. Oheratzen zenean, erabat jota egon arren, nekea idazteagatik zela eta pozik eta bizirik sentitzen zen. Poeta eta idazle azkenera arte. Eta haren hirugarren gomuta bat ere badut, frantziskotar bezala pobretasunean bizitzeko hitza eman eta azkenera arte bete zuela esaten baitzuten, gorputz zaurituaren pobrezia esaten zuten, eta horrek erabat hunkitu ninduen, gorputza xehatzen, hausten joan baizitzaion.

Juan SAN MARTIN

Poeta handia eta oso lagun ona izan zen; asko maite nuen. Haren euskara aberatsa eta imaginazioa nabarmentzekoak ziren. Arantzazu inguruko mendietan ezagutu genuen elkar orain urte asko, sarritan egiten genuelako topo. Horrenbeste aldiak elkar argutu eta gero, lehenengo aldi hitz egitera gelditu ginenean, ordurako nik hark idazitakoak ezagutzen nituen eta hark nik idatzirikoa ere bai, nahiz eta gu ez ezagutu. Ordur gero, mendian elkarrekin asko ibilitakoak gara.

Felipe JUARISTI


Poeta izan da. Eta argitaratu dituen lau poesia liburuetan bere poesiaren bilakaera ikus daiteke. Bere lehen liburuan, "Elorri"n, naturaren aurrean xundituta dagoen gizona aurkitzen dugu, natura da protagonista; ondorengoak, "Hiru gizon bakarka"n, gizona du ardatz. Eta hemen hizkuntzari

buruz zituen kezak eta herri honen izaera eta ezaugarriko kezak agertu zituen. Nahiz eta Arantzazutik gutxi irten, poeta handia izan zen, Arestiren edota Blas de Otereron paretan. Euskararen ezagupide-rik eta kantu bertso tradizioak abiatuz, euskal poesia modernoaren sortzaile izan zen. Hirugarren liburuan, "Uda batez Madrilren" -en, poesia estetikoak landu zuten, hiria eta Gandia-

ga, hiria eta natura. Pertsona moduan, gizon irekia zen, atsegina eta oso umila, sentimendu handiz hitz egiten zuten guztiaz.

AEK

Bitoriano Gandiagak AEKreko eta Korrikarekiko erakutsi zituen prestutasuna eta abegi ona gogoraziz, Alfabetatze eta Euskalduntze Koordinadorak sentitako, lagun eta kideei, bere dolua eta nahigabea adierazteko ohar bat kaleratu zuen atzo «euskararen alde lanean ari garenguz garrantzitsuak abiste hitsa baita Bitorianoaren heriotza».



Frantziskotar jantzita, Bitoriano Gandiagaren zerraldioa elkartarean kapetan dago atzodanik.

Andoni CANELLADA

Xabier MENDIGUREN

IDAZLEA

Basati eta delikatua

Behin izan naiz («nintzen» esan beharko dut aurrerantzean) Bitorianoarekin aurrez aurre eta lasai samar, orain dela hamar bat urte. Gizon apala, lotsatia («piztia izua» deitzen zuten bere lagun Joxe Azurmendik), eta, hala ere, izugarriko inpresioa eragiten zizuna: karma berezia zerion bere hizketa-moduari, benetakotasuna bere izate osoari.

Antzekoa da Gandiagaren poesiak sortarazten duen zirrara: itxurazko simplezia baten azpian perfektzio landu dago, eta bihurtu zabal baten tapadua boritza. Mendiko lorearen edertasun basati eta delikatua moduan edo: Elorri liluragarria, Hiru gizon bakarka profetikoa, Uda batez Madrilren kaleidoskopikoa, Denbora galdu alde barne-mindua, Ahoetik behatu gabe azkenea... Orain galdu dugu gizona, baina geratzen zaigu haren lurrina, topiko errepikatua barkatzen bazait, ez baita etzaza hildakoez ezer taxuzkorik esatea. Bitoriano berak, ordea, dotorezia baikorrez irudikatu zuen bere heriotza, frantziskotarren umiltasuna eta arbasoen espiritu paganoa uztartuz: «Hil ondoren / poza dadila lurrean / opa ahal izatearen / atsegina daukat».

Panteismoa blaiatu ohi duen bere kristautasuna izadia maite duten fraideek. Horrenbestez, Gandiagak oroituko gara Arantzazura igotzen garen bakoitzean, eta batez, ere txori bat bere hegaldian etena eginda harkaitz batean geldirik sumatzen badugu: «Hegaztientzat pasauri, / arraintzakoko uhari, / ainiduke lur mateak / zerbaitetan lagungarri».

TXILLARDEGI

IDAZLEA

Gandiagari buruz

Epe labur batean Villasante eta Gandiaga joanak.

Arantzazu umezurtz.

Biok frantziskotar, biok bizkaitar, biok euskaltzale gartsu.

Galera handia gure hizkuntzarentzat.

Bateratsu Arantzazura iritsiak (1947 eta 1951n, ene oroinemak bideratzen ez zenuan), bateratsu utzi gaituzte. Harreman handia izan nuen «Gandi»-rekin 1977az geroztik. Iruñeko UEU amatean, «Milikua»-ra joan ohi nintzen urtero, eta hantxe sortu zen gure arteko harremana.

Gandiagaren proposamenez idatzi nuen nik Arantzazun «Euskal Fonoilogia» liburua, hain zuzen, aste haietan frantziskotarren bizimodu berbera egiten nuelarik.

Eta orduantxe izan nuen eguneroko Gandiagarekin bizitzeko eta paseatzeko zoria: Duru, Iturrigorri, Gaztelugaitz. Mapa topomimiko oso bat marraztu zidan hango izenak zehazki ezagutuko... Eta irailen mendi-mazelak gorritzen hasten zirenean, tristura nolokoa izan daitekeen somatu nuen.

«Titulu» ofizialik ez zeulako eta, kometria batzuk ezagutu zituen Gandiagak euskara irakasteko. Gure hizkuntza ez bide zuten ongi ezagutzen... Otoi!

Euskal hitzegi bizia zenak hori jasan behar...

Gandiaga sentibera zen ezin sinetsizko mailan.

Horretan funtsatzen ziren bere poesia eta bere izaera. Galera gaitza Arantzazuk eta euskal mundu osoak.

Amala ITURBIDE

IDAZLEA

Bere hitza, harri eta herri xehearen aitormen itsua

«Denbora galdu alde» Bitoriano Gandiagak idatzi dituen liburuen artean gogorrenetako delako esan baneza, asmatuko nuke atoa, ziur aski. Bere apostoluekin bateratsu, Oteiza mutua eta gor-imintzioka hurreratu zitzaigun. Orobat Gandiaga ere, «Denbora galdu alde» idatzi zuenean. Inoiz ez delako izan errazkerietara jo zale, «Denbora galdu alde»-ri burutik burua usain erre dario, eta hagineta mina, euskaldun izateak dakarren mina. Baina min hori beharrezkoa zaio, min zaharrik gabe umezurtz baitago; oina, beraz, euskaldun izaeraren ezinbesteko atala, bai bere buru barnean egosten dardaruden sentipenak babesteko txapel bezala, bai er arkerenean ezarritako errealtateak aldentzeko ezkutu gisa. «Zai» esan dugu, baina lasai asko ipin genezake «zaigu»; izan ere, «Denbora galdu alde»-n ez ote digu erakusten euskaldun guztioi geure aurpegi ezkutu, samina, oraindik gure hagineta minaren imintzio itxuragabeta? Ez ote digu, karta botatzale deserosoaren patera antzeztuz, kartetan itxusiena, denok ondoto ezagutu, mahai gainean, behin eta berriro, era obesiboa ahoz gora jartzen? Ez ote digu aldarrikatzen geure oinarriaren bai oinarri, bai hariari zauriak darizkela oraindik, ez dela sendabiderik gertatu eta agian aurrerakoan ere ez dela gertatuko? Bai, hizkuntzari doakionez, edozein erdi irtenbideri bazter eginik, erdarari oldartzen da goienik barren, eta nolabaiteko erdipurdiko euskal hitzunei nabarmen-tzen dizkie nabarmentzekoak, euskaldunok mihi sitsak jota oharitzen gaituela. Ez jakitetik barik, euskaraz berba egin nahi ez izatek bitartor gaitz larriena, arean. Egoskor dabil Gandiaga. Beharko ibili, euskara aurrera atera nahi bada!

Biorritmo estu (Mikel Lasak horrela ikusi zuen liburua: «Liburu hau Gandiaga gizonak duela laupabost urte jasan zuen malenkonia krisi baten lekuko eta aitopena da») eta gogorleko liburu honetan bi plano bereiz ditzakegu: pertsonala, egilearena, batekik, eta kolektiboa, herriarena, bestetik. Poeta orain arteko bere azken liburuan, orain arteko bere azken helmugan, zorigaitzoko topatzen dugu, bere burua zigortzen jarraitzen duelako, bere burua onartzeko prest ez dagoelako, bere burua zortzatz eduki nahi lukeelako; zoroa, mugaren mugan eta oinaztean itota dagoen trapuzko burua. Gandiagaren dagoen demarria, zuloaren parkeko irribarre batezkoa. Guztia da harria edo guztia dola harri biltuz, bera dagoen tokian. Eta «dagoen»-diogu, Gandiagak ez baitu ezer ukitzen, soil-soilik —eta hori nahikotxo da— egonean dago. Harritzokoa du atorra, harritzokoi irribarre eta lotsa, bere antzinatasuna, bere ispilua, oraina eta geroa, jaultzitzen zaion hitza, harritzokoi bere sentimendua, hizkuntza eta fidelatasuna, harri eta belarri eginik egotero. Bere hitza ez baita beste zerbaitean isla, aitormen itsua baino, harri eta herri xehearena. Bere aurpegi apala zaigu, eta, hala ere, harritzokoa, harrigarria harriduran harri egia. Harri ikusia, eta, hala ere, ikustekoa. Zertan harri edo non kokatu? Herrikoitasunaren ardatzean. Ez da berriz ere ezagutzea...